

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Agenda 21eko Foroaren parte hartze tailerraren akta

Gaia: Legazpiko Natur Ondarea. Nola sustatu natur ondarearen babesa, zaintza, zabalkundea eta balioespina?

2008ko apirilaren 3an.
Legazpiko udaletxean.
18:30tik 20:00etara.

Ezker batean dago mila basoren sorrera.

● Taldea, Foroaren protagonista.

Ezker bat... mila baso...

Eta gu? Gure indar guztia, gure konpromisoa eta gure proposamenak arbasoengandik jaso dugun ingurumenaren, biodibertsitatearen, natur ondarearen alde jarriko bagenitu.....zer lortuko genuke?

Legazpiko Agenda 21eko Foroan ez dugu galdera horren erantzuna; baina garbi daukagu gure gune txiki honetatik, eta umiltasunez, gure udalerraren iraunkortasunaren alde urratsak ematen jarraitu nahi ditugula, eztabaidatuz, proposatuz,...

Horregatik gaur **23 pertsona** bildu gara berriro eta guztiok dugu ingurumenarekiko eta iraunkortasunarekiko sentiberatasun berezia.



Gure denbora, gure ideiak, hausnarketak eta proposamenak ekarpen txiki bat dira eta horrek ongi merezi du eskerrak ematea!



Montse Vallejo ♦ Isabel Vallejo ♦ Floren Gutiérrez ♦ Juan Miguel Urrutia (zinegotzia) ♦ Ana Salinero (zinegotzia) ♦ M^a Amor (Iratzarri) ♦ Joxan Auzmendi (Ingurugela-Legazpi) ♦ Manuel Fernández (Buztintegi) ♦ Junkal Fernández ♦ Jose Luis Ugarte ♦ Ana Manzanos ♦ Lurdes Etxaniz ♦ Iker Azurmendi ♦ Fernando Martínez de Albeniz ♦ Asier Galdos ♦ Sagrario Díaz ♦ Agurtzane Elustondo (Lenbur) ♦ Jose Luis Cid ♦ Sotero Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

● Gaurko gure lana: Legazpiko Ondare Naturalaren aldeko ekintza proposamenak pentsatzea.

Izan ere, lan horri ekin diogu gaurko tailerrean: Legazpiko natur ondarea babesteko, zaintzeko, zabaltzeko eta balioesteko bideragarriak, beharrezkoak, interesgarriak,.... izan daitezkeen ekintzak pentsatu ditugu.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion partehartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Nola? Lehenengo lana gaia kokatzea izan da eta, horretarako Legazpik duen natur aberastasunari buruz joan den otsailaren 13ko foroan Carmen Segurola andreak eskaini zigun informazioa eta eman zituen datuak berreskuratu ditugu. Oso baliagarria izan zaigu irudiekin eta azalpen zehatzekin Jose Luis Ugarte herritarrak eta Inma Hernandez teknikariak eskaini diguten aurkezpena. Ezagutzen ez genituen Legazpiko txokoen berri ere eman diguzue!



Legazpin epe motz eta ertainean ingurumenari buruz bultza daitezkeen eta Udala lantzen ari den Iraunkortasunaren aldeko III. Ekintza Planean sar daitezkeen ekintzak pentsatzeko tarte bat.

● **Emaitza?** Proposamen ugari eta desberdinak

Ez dugu ezurraren ahalmena lortu baina... Ez gara atzean gelditu! Ondorengo taulek gure lanaren emaitza jasotzen dute zehatz-mehatz; emaitza horiek, gainera, lanean jarraitzeko aukerak eskaintzen dituzte.

1. Zer nolako ideiak, proposamenak, ekintzak bururatzen zaizkigu Legazpiko natur ondarea BABESTEKO ETA ZAI NTZEKO?



Ingurumenean zuzenean jarduteko proposamenak:

- **Aizkorri** eremua:
 - Udallerriak modu eraginkorreetan parte har dezala Erabilera eta Kudeaketa zuzentzeko Planaren zehaztapenean eta betetzean.
 - Udalak eta udallerriak "Aizkorriko Parke Naturalerako atea" izatea bultza dezala.
- **Gorostiaga:** Gorostiaga mendiko antolamendu- eta kudeaketa-Plana egin. Gorostiaga mendia babesteko bide berezi bat izateko aukera aztertu.
- **Urtatzako urtegia:** Urtegiaren ingurunea berreskuratzeko eta balioesteko proiektua egin eta gauzatu.
- **Urola ibaia eta arroa:** Ibaia eta iturburua babesteko neurriak hartu eta, era berean, natur baliabide horren balio estrategikoa zabaldu.
- **Aizkorri-Gorostiaga-Izarraitz korridore ekologikoa** bultzatu.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion partehartzearekin, iraunkortasunaren bidean



1. Zer nolako ideiak, proposamenak, ekintzak bururatzen zaizkigu Legazpiko natur ondarea **BABESTEKO ETA ZAINTEKO?**

Ingurumenean zuzenean jarduteko proposamenak:

- **Gerriko berdea:** Hiri-antolamendurako Plan Orokorrean proposatutako gerriko berdea (Legazpiko hirigunearen inguruan 100 metro) egiteko baliabideak jarri.
- **Bideak eta bidezidorrak mendian zehar:** Bideak mantentzeko jarduketak bultzatu (gutxienez lurzoru publikotik igarotzen direnetan).
- **Eremu zehatzak garbitzeko eta berreskuratzeko ekintzak** gauzatu, horretarako talde zehatzen laguntza bilatuz (adibidez, ehiza-postuen inguruak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin ibai-ertzak, ur-ipurtatsaren ekosistema berreskuratu,...)

Kudeaketarekin zerikusia duten jarduketaren proposamena:

- **Hirigunean biodibertsitatea sustatzeko Plana** egin.
- Udalerriko natur ondarearen Inbentarioan balore eta ezaugarri bereziak (flora, fauna,...) dituzten Legazpiko eremuak babesteko eta zaintzeko helburuarekin, Administrazioaren eta jabe pribatuen artean **herrialdea zaintzeko hitzarmenak bultzatu**.
- Administrazioaren, basozainen elkarten eta/edo jabe pribatuen artean lan egitea sustatu. Helburua: **Legazpiko baso eta oihan-eremuen kudeaketa iraunkorragoa** bultzatu, horretarako ondoko neurriak hartuz:
 - Baso-kudeaketa iraunkorragoa lortzeko aholkuen eta jokabide onen berri eman (makineria erabiltzerakoan, espezieak, sortuko diren hondakinak jaso eta kudeatzerakoan,...) eta horretarako dauden laguntzen gaineko informazioa eman.
 - Zuhaitzak moztu aurretik azterketak egin, mugak eta moduak zehazteko helburuarekin (hasiera batean lan hori basozainen egitekoa da baina lan hori indartzea komeni dela ikusten da).
 - Udalak landatu gabe dagoen baso-lurra eros dezala, lurzoru horretan bertako espezieak landatzeko.
 - Baso-pista gehiago zabal daitezela debekatu/mugatu eta horietatik dabiltzan ibilgailuen igarobidea kontrolatu.
 - Hazkunde laburreko espezieen landaketa udalerraren eremu indartsuenetara mugatu (edo, gutxienez, horren berri eman jabee).
 - Legazpiko baso-eremuen bilakaera ikustaraztea ahalbidetuko duten adierazleen kalkulua eta jarraipena egin eta neurriak hartu (adibidez, baso-landareekiko bertako espezieek okupatzen duten lursail-proportzioa)
- Legazpiko natur ingurunearekiko jokabide desegokien edo erasoaren aurrean herritarren "salaketa" eta kontzientzia kritikoa sustatu, jokabide horiek agerian gera daitezen eta horien aurka hartu beharreko neurriak har daitezen.
- Suteei aurrea hartzeko plan bat egin, nola jokatu adieraziko duen protokoloa izango duena.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion partehartzearekin, iraunkortasunaren bidean



2. Zer nolako ideiak, proposamenak, ekintzak bururatzen zaizkigu Legazpiko natur ondarea ZABALTZEKO, EZAGUTZEKO ETA BALIOESTEKO?

Abiapuntu gisa...

- Legazpiko ondarearen eta dibertsitate natural eta kulturalaren Inbentarioa egin (mendiak, landareak, animaliak, hizkuntza, toponimia, nekazaritzako ohitura zaharrak, bertako haziak,...)
- Inbentario horren arabera eta ahal dela lehenatasun-mailak adieraziz, herri gisa galtzen utzi ezin dezakegun aberastasun, jakinduria eta memoria hori berreskuratzeko eta gordetzeko ekintzak sustatu.

Zabaltzeko eta sentsibilizatzeko jarduketan proposamena:

- Erreka eguna ibaia balioesteko ekintza gisa (jarraipena eman).
- Naturaren gaineko argazki-lehiaketa eta/edo ikastaroa.
- Legazpiko natur ondareari eta inguruneari buruzko argazki erakusketa, dauden errealitate egokiak eta hobe daitezkeenak erakutsiz.
- Irteerak eta txangoak (ikastetxeekin koordinatuz).
- Legazpin baso-lursailak dituzten jabeen artean lehiaketa antolatu, lursail horiek kudeatzeko jokabide egokiak sarituz.
- Urola Garaian biodibertsitateari buruzko bi urteroko lehiaketa sortu.
- 2009-2010 ikasturtean biodibertsitatea aukeratu Eskola Agenda 21eko ardatz gisa, ikasturte horretan udalerrian ere gai horrekin lotuta dauden ekintzak sustatuz.
- Aholkuak kontsumo iraunkorrari buruz lehen sektorean (herriko produktuen sustapena, arrainaren kontsumo arduratsua,... etab.).

Legazpiko natur aberastasuna ezagutzera emango duten **materialak, argitalpenak** egiteko proposamena:

- Inbentarioaren eredu erraz bat egin, herritarrei zuzenduko zaiena.
- Legazpiko bide eta ibilbideen katalogoa.
- Egutegiak, bideoak, multimedia tresnak...
- Lekuan bertan seinaleak jarri (informazio-panelak, identifikazio-panelak,...)

Natur ondarea kudeatzeari dagokionez, **jokabide egokiak** zabaltzeko proposamenak:

- Udaletxeko Nekazaritza batzordean, Legazpiko baserritarrek aukera dute euren ezagutza eta proposamenak konpartitzeko.
- Basozainekin eta/edo euren jarduerarekin natur ondarean eragina duten bestelako erakundeekin (adibidez, Iberdrola, basoan jartzen dituen goi-tentsioko zutabeak direla eta,...) lan pertsonalizatua egin daiteke.
- Eskolako Agenda 21aren bidez ikastetxeekin egin daiteke lan.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion partehartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● **Eta guztiarekin, zer?** Jarraipena eman behar diogu...

Zenbat proposamen, eta era askotakoak!

Nondik has gaitezke? Zein konpromiso har dezakegu aurten? Zeintzuk dira Udalaren eskumenekoak eta zeintzuk ez? Zein baliabide behar ditugu? Guzti honetan zein da Legazpiko Agenda 21eko Foroaren eginbeharra?

Gure ideia eta proposamenak elkarrekin eztabaidatu ondoren, asko izan dira sortu zaizkigun galderak. Eta galdera horiek erantzuna eskatzen dute, baina gaurko denbora agortu zaigu dagoeneko. Beraz, gai hau lantzen jarraituko dugu (gustukoa dugu eta! Ikusi eta sumatu egiten da!) hurrengo egunean ere...

● **Agur esan baino lehen bi ohar, eta gure hurrengo bilerarako hitzordua!**

Legazpiko Agenda 21eko Foroa datorren maiatzaren 22an elkartuko da berriro. Baina hori baino lehen, bi hitzordu garrantzitsu eta interesgarri ditugu eta Inmak eman digu horien berri.

Klima-aldaketari buruzko hitzaldi baterako gonbidapena:

- **Apirilaren 10ean, arratsaldeko 19:00etan Legazpiko Kultur Etxean** izango da. Hizlaria Eduardo Ochoa de Aspuru izango da (Doktorea Biologia-zientzietan eta AI Goreren ikaslea). Gai hori sakontzeko aukera berri bat!

Eskola Agenda 21eko Foroa, apirilaren 24an, arratsaldeko 17:30an:

- Urtero, bilera berezia egiten dugu eskola Agenda 21ean lan egiten duten Legazpiko ikastetxeekin eta ikasleekin. Eskola Agenda 21ean eman dituzten urratsak, hartu dituzten konpromisoak eta egin dituzten ekintzak ezagutzera gonbidatu nahi zaituztegu. Modu berean, Udalari egingo dizkieten eskariak eta proposamenak entzungo ditugu.
Entzun dezagun haien ahotsa ere!

Eguneratu dugu egunerokoa eta gure burutxoan ideiak eta erronkak saltoka ari direla, agur esaten diogu elkarri!

**Esker mila
guztioi!**

